


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

PASAI KALEA 1



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Kale kantoiko eraikina, beheko solairua, harrizko basamentuan sartutako lehen solairua, goiko lau solairu eta seigarrena atzeraemana dituen profilarekin. Neoplatereskoko detaile batzuk dauzka, zabalguneko beste eraikin batzuen antzera, eta, horrenbestez, XX. mendeko hirugarren hamarkadako datake: zehazki, paretako testurak aberasturik goiko erremateari ematen zaion tratamendua, balaustradetarako aldaketa, arkuaren erabilera, idulkiak bola eta pinakuluz koroatzea eta kantoiko tenpletea. Begiratokiak muturretan eta kantoian daude, alaka saihesturik ordea. Azpimarratzekoa basamentuaren eta pabiloi irtenaren harrizko akabera, eta lehen solairuko terraza, Ategorrietarako aurrealde honetako beste eraikin batzuekin erlazionatua, espazio pribatukoak diren lorategi zatiak ere badauzkala.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atiko atzeraemana.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.